

Goi Aro Berriko Bizkaiko Batzar Nagusi eta Erregimentuei buruzko ohar batzuk

(Some notes on General and Particular Assemblies in Biscay in the Early Modern Ages)

Zabala Montoya, Mikel

Bizkaiko Foru Liburutegia. Diputazio Kalea, 7. 48008 Bilbo

mikel.zabala.montoya@bizkaia.net

Jaso: 2005.01.31

BIBLID [1136-6834 (2011), 37; 99-116]

Onartu: 2011.03.09

Hainbat mendetan zehar Batzar Nagusiak eta Erregimentuak Bizkaiko Jaurerriko ordezkaritza erakundeak izan dira. Erakunde hauek goraipatu edota mesprezatuak izan dira, sarritan egiaztapenik gabeko aurreritzietan oinarrituta. Dena dela, gaur egun ere haiei buruzko erantzunik gabeko galdera asko gelditzen dira, batez ere Goi Aro Berriari dagokionez. Artikulu honetan haietako batzuk landuko dira, partaidetza edota Hiribilduetako barneraketa prozesua batik bat.

Giltza-Hitzak: Erakundeetako historia. Bizkaia. Ordezkaritza erakundeak. XVI-XVII. mendeak.

Juntas Generales y Regimientos han constituido durante siglos los órganos representativos del Señorío de Bizkaia. Estas instituciones han sido idealizadas o menospreciadas, con frecuencia a partir de ideas preconcebidas. Sin embargo, todavía hoy son muchos los interrogantes sin aclarar acerca de ellas, en especial en los inicios de la Modernidad. En este artículo se estudiarán algunas cuestiones, prestando especial atención a la participación o al proceso de integración de las Villas.

Palabras Clave: Historia institucional. Bizkaia. Instituciones representativas. Siglos XVI-XVII.

L'Assemblée Générale et la Députation ont été longtemps les institutions représentatives en Biscaye. Ces institutions ont été très fréquemment idéalisées ou critiquées d'après des idées préconçues. Cependant, il reste encore plusieurs questions sans réponse, spécialement sur le commencement du Moderne Âge. Dans ce article on analyserá quelques questions et on étudierá surtout la participation or l'intégration institutionnelle des Villes.

Mots-Clés : Histoire institutionnelle. Biscaye. Institutions représentatives. XVI^e-XVII^e siècles.

Manex Goihenetxe irakaslea entzuteko izan nuen lehenbiziko aukera nahiago nukeena baino askoz lehenago izan zen, A. Oihenarti buruzko hitzaldia eskaini zuenean, R. M^a Miezak koordinatutako Ipar Euskal Herriko historiazko ziklo batean. Halako hartan nire amarekin batera azaldu nintzen, garai hartan biok gaiaren inguruan ezjakintasun maila bera genuela. M. Goihenetxeren hitzetan Euskal Herriko etxeetan falta behar ez zen mapa zahar bati buruzko aipamena jakin mina piztu zion amari. Beharbada berak hitzaldi hartan esangura handirik gabeko datua bereganatu zuen (nire kasuari zegokionez, behintzat, inolako zalantzarik ez dut: gauza handirik ez nuela ulertu –nire ezjakintasunagatik, jakina, eta ez hizlariaren akatsagatik– guztiz segurutzat har daiteke). Edozelan ere, berak mapari buruzko erreferentzia hartu zuen, ahal izan zuen modura, eta handik aurrera buru belarriz bila ibili zen liburu-denda, liburutegi, azoka, eta abarretan. Alferrik, alabaina, inon ez zuelako topatzerik izan. Horrexegatik, aurkitzeko modurik ez zuela konprenitu eta gero (hitzaldia entzun eta askoz beranduago), M. Goihenetxeri idatzi zion.

Hutsaltzat har daitekeen aurreko pasadizoarekin zera ondorioztatu nahi dut. Nire esperientziari dagokionez, ezagupen handirik ez izanik ere, gure sustraiak ezagutzeko hala edo nolako irrika izan dugunok erakartzen M. Goihenetxek paregabeko abilezia erakutsi duela. Eta horixe goraipatu eta eskertu nahi diot hemen, jarraian aurkezten dudan idazlana bera bezalako pertsoneri esker posible izan delako.

SARRERA

Artikulu honetan Bizkaiko Jaurerriko erakunde nagusietako partaidetza aztergai izango da bertako aktak mantendutako lehenbiziko mendean zehar¹. Analisi horren bidez Goi Aro Berriko Batzar Nagusi eta Erregimentuetako eraketa eta 1630. urteko Konkordiaren eragina berrikusiko dira, M. Goihenetxek berak behin planteatutako galderarekin hala edo nola lotzen: zein neurritan erakundeek garaiko gizartearen egitura islatzen dute?² Idazlan honetan galdera honi erantzuten baino –arrapostuak orri hauen ahalbideak gaudituko lituzke eta– ekarpen txiki-txikia osatzen saiatuko naiz.

Ezaguna denez, dagokigun garaian –XVI. mendeko bigarren erdia eta XVII.eko lehenbizikoa– Jaurerriko jardueretan herri xumearen partaidetza murrizten zuen araurik ia ez zen izan. Horrez gain, erakunde haietako antolaketa bera –itxuraz, behintzat– oztopo handirik gabe menpeko taldeen asistentzia onartzen zuen bileretan oinarritzen zen. Gai honek eztabaida luzeak piztu ditu aldeko eta kontrako irizpideak aurrez aurre jarriz, batzutan oinarri dokumentala falta zela. Jaki-

1. Haietako batzuk, gainera, argitaratu dira paperaz eta euskarri elektronikoan.

2. M. GOIHENETCHE. *Historia General del País Vasco. Evolución política e institucional entre los siglos XVII y XVIII*. Donostia: Txartalo, 2000; 117. or.

na: ez dut ondoko orrietan behin betiko erantzunik eskaini nahi, nire asmo bakarra material eta ideia batzuk ezagutzera ematea besterik ez da eta. Edozelan ere, erakunde hauen azterketa zehatzagoaren bidez bestelako ikuspegia antzeman daitekeelakoan nago.

1. BATZAR NAGUSIAK

1.1. Asistentzia

Nekazal inguruetan Batzar Nagusietarako asistentzia Elizateko Fielak edota eskribauak bete ohi zuten. Gutxiagotan haien ordezkariak beste auzokideren bat azaldu zen. Aldaketak hainbat garaitan baserriar edota bestelako etxajaunek asanbladetan azaltzeko desabantailengatik konpreni daitezke. Dena dela, ordezkariak hauek baino interesgarriagoak dira bikoiztasun instituzionalari³ lotutakoak (Elizate eta Hiribilduz osatutakoak, alegia), hau bertan behera utzi ahal izateko partaide batzuk auzotasun desberdinak batera izan zutelako. Araudia betetzea exijitzen zuten akordioak alferrikakoak izan ziren⁴, behin eta berriz betetzetik ez zuten eta. Gai honi buruzko adibideak ugariak baino esanguratsuak dira, protagonistak apartekoak izateagatik. Ciudad Realgo Dukearen idazkaria zen Pedro Guerrero de Andia Gorliz, Leioa eta Plentziaren izenean bertaratu zen; honen hurbilekoa zen Gaspar de Múxica, berriz, Plentzia eta Lemoizen ordezkariaren; Diego de Iruixa Gatz Estankoren Matxinadako buruzagia, azkenik, Ziortza, Lekeitio edota Galdakaoren izenean azaldu zen. Bilbok, aipatutako jukutriaren jasotzaile nagusia zenak, trukaketak ekiditeko asmoz ordezkariak errepublikari eta ahaldunaren auzotasuna bat etorri behar zirela arautzen zuen 1638.eko dekretuaren aurkako irizpidea erakutsi zuen⁵.

Edozelan ere, aurrekoaren kontrako ematen duen datua ere jakinarazi nahi dut. 1584 eta 1640 bitarteko Batzar Nagusietan ahaldun bakoitzeko batezbesteko asistentzia 1,75ekoa izan omen zen⁶. Maiztasun hau, Batzar Nagusietako oligarkizatze prozesuaren abiapuntutzat har daitekeena, askoz gehiago murrizterik ez ei zegoen, menpeko taldeen alfabetatze-maila zela kausa.

3. Hiribildu eta Elizateen elkarren aurkakotasunaren jatorria Ermandadearen porrotari leporatu dio A. DACOSTAK: *Los linajes de Bizkaia en la Baja Edad Media: poder, parentesco y conflicto*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2003; 244. or.

4. 1597.eko Uztailak 30eko Batzar Nagusietan, esate baterako, Hiribilduetako auzokideak Elizateen izenean azaltzea debekatu zuten.

5. 1638.eko Irailak 29ko Batzar Nagusiak.

6. Eragiketa hau egiteko urte bakoitzeko –izatekotan– Batzar Nagusi bat oinarritzat hartu dut, ahaldun guzti-guztiak identifikatu ahal izateko zailtasun eta arazo onoriozko gutxieneko tartea onartu beharra dagoela.

1.2. Arau murrizgarria

Kaparetasunik edota ordezkaturako udalerriko auzotasuna egiaztatzen ez zutenek Batzar Nagusietan azaltzea debekatuta zeukaten. Horrez gain, toki desberdinetako ahalmenak batera pilotzea galarazita zegoen. Beste eskakizunak ere baziren: ahaldunak gaitasunik izatea edota ordezkaturako erakundeak Jauerriaren aurkako auzirik ez edukitzea, esaterako⁷.

Auzotasunaren araua ez zen askotan bete izan, gehienetan bestelako arazorik sortu gabe. Auzietakoa, berriz, oso gutxitan gauzatu zen, nekazal udalerriek –gehienak baliabide urrikoak zirenek– gastu ugariaren iturburua izan zitekeen halako erronkari aurre egitea ez zutelako batera errazik izango. Izan ere, garaiko kanporaketa bakarrak Elizate handiko ordezkariak jaso zuten –Abando eta Mungia-koek, hain zuzen ere–, auziak sutegi-banaketatik ustezko gehiegizko ordainketak zirela kausa.

Era berean, aztertutako tartean Batzar Nagusietako partaidetza murrizten zuten xedapenak ere gutxi izan ziren, jarraian ikusiko denez.

1562.ean Juan Aguilar Korrejidoreak Elizateetako Fielak ez zirenen asistentzia debekatu zuen. Halako neurria hartu zuen hurrengo Batzar Nagusietan –kargua utziko zueneko asanbladan, hain zuzen– iskanbilak ekiditeko asmoz, aurrez jaso zuen ezohiko harrera zalapartatsua kontutan hartuz gero, guztiz ulergarria dena⁸. Hala ere, bilera izan baino zertxobait lehenago bertan behera utzi zuen debekua⁹, udalerriek harenganako zuten irizpidea ezagutu zuelarik.

1602. urtean, lehen aldiz, Batzar Nagusiak atearik itxita ospatu ziren, Trukaketetako Liburua indarrean sartzeko egitasmoak eragindako amorruak behartuta¹⁰.

1613.eko Abenduak 10eko Batzar Nagusietan handik aurrera asanbladetan sartu ahal izateko –eta kargurik betetzeko– gazteleraz alfabetatua izateko eskakizuna arautu zen:

[...] que de aqui adelante que a quien no supiere leer ni escribir en romance no pueda ser admitido en la dicha Junta ni aunque sea con poder de su anteyglesia para las elecciones de cargos e oficiales del dicho Señorío, ni tampoco puedan ser Electos

7. MONREAL CÍA, G. *Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el Siglo XVIII)*. Bilbao: Bizkaiko Aldundia, 1974; 344-349. or.

8. Zehazkiago landuta: ZABALA MONTROYA, M. "Goi Aro Berriko Bizkaiko Batzar Nagusiak 1630.eko Konkordia baino lehenago: desoreka eta gatazka". In: *Sancho el Sabio*, 22. 2005; 173-212. or.

9. 1562.eko Apirilak 17ko Lur Lauko Erregimentua.

10. 1602.eko Irailak 4ko Batzar Nagusiak. Cf. GONZÁLEZ, T. [Arg.] *Colección de Cédulas, Cartas Patentes, Provisiones, Reales Ordenes y otros documentos concernientes a las Provincias Vascongadas*. Madrid: Imprenta Real, 2. alea, 1829; 286-290. or.

ni por tales oficiales los que no supieren ler ni escribir para que mejor se gobierne la república del dicho Señorío¹¹.

Ondorengo urtetan araua sarritan errepikatuko zen¹². XVII. mendeko hogei-garreneko hamarkadan kontua larritasun handikoa izan zen, kargudun batzuk kanporatu zuten eta¹³. Halako xedapenak blokeen elkarren aurkako lehiaren tesuinguruan ulertu behar dira, nik uste, batzuk zenbait fakzioren interesen kontrako erabakiak hartuko zirenen asanbladetara sarrera murrizteko tresnak baino ez zirelako izan. 1624.eko Martxoak 19ko Batzar Nagusietan, adibidez, ezados-tasunak konpontzen saiatuko ziren bi blokeetako bitartekariaren izendapena ezagutarazi zen. Eta hurrengo asanbladan, kanporaketak izateaz gain, aurrekoaren norabide bereko aurrerapausoak ere egon omen ziren –Orozko barneratzeko eskakizunak hala ematen du–, nahiz eta, azkenik, Kapitainen aukeraketa bezalako beste gai batzuk blokeen arteko harremanak hoztu. Bestalde, 1626.eko Azaroak 24 eta 1628.eko Urtarrilak 11ko Batzar Nagusietan ordezkari euskaldun batzuk zigortu ez ezik, Martín de Laveaga, Hiribilduetako Idazkaria zena, kalera-tu zuten bere blokea deitzen erakutsitako asmo irmoagatik.

Edozelan ere, arazo nagusia isildu bezain laster arauak ere baztertu ziren. 1625.eko Irailak 16ko Batzar Nagusietan, esate baterako, aurreko bileran¹⁴ kanporatutako Martín de Cobeaga Ereñoko ahalduna onartu zuten. Izan ere, xedapena sekula ez zen tinkotasunez bete, behar bezala gauzatu ahal izateko begien bistako zailtasun handiak zirela medio. 1624.eko Apirilak 17ko Batzar Nagusietan, non hainbat ahaldun kanporatu zuten, Arrietako Juan de Oxinaga, aurreko hilabetearen arrazoi berberagatik sartzerik izan ez zuena, onartu zuten¹⁵.

1638.eko Maiatzak 4ko Batzar Nagusietan ahaldun analfabetoak onartu zuten, aurrerantzean berriz ez egiteko izanda ere¹⁶.

1.3. Bandoak

Batzar Nagusietan parte hartu ahal izan izateko arauak –batik bat, ordezkari kopuruari zegokionez– ez zituzten beti garbitasun berberaz bete. Gobernu berria aukeratzeko asanbladetan gainerakoetan baino begirune handiagoa izan ohi

11. BFAA. AA. Bizkaiko Batzar Nagusi eta Erregimentuetako 7. Akta Liburua (1613/20), 10. or.

12. 1618.eko Uztailak 10, 1620.eko Uztailak 28, 1627.eko Azaroak 2 edota 1652.eko Urtarrilak 30eko Batzar Nagusietan, hain zuzen ere. Huraxe, ohi bezala, desobedientziaren adierazpidea zen, nonbait.

13. Garaiko kanporaketetarako ik. MONREAL CÍA, G. *Op. cit.*; 346-347. or.

14. 1625.eko Maiatzak 20ko Batzar Nagusiak.

15. 1624.eko Martxoak 19ko Batzar Nagusiak.

16. Neurri hura ulertu ahal izateko, nire iritziz, eskakizun fiskal batek bilera hartan jasotako eze-zko erantzuna kontutan hartu beharra dago, bertan –gerra zela kausa– bestelako gastuen berri eman zuten eta.

zen¹⁷, espero zitekeen bezala. Bandoen arteko diferentzietako aitzakiaz baliatuz, udalerrri batzuk ahaldun bat baino gehiago –normalean bi, bando bakoitzeko bat– sartzen saiatu ziren.

Ezohiko kasu batetan, Barakaldok hiru Fiel aurkeztu zuen 1569.eko hauteskundeetara¹⁸. 1574.ean¹⁹, Korrejidore titularra falta izateagatik edo, Elizateetako bigarren ordezkariak parte hartzerik ez zutela saihestu zuten²⁰, udalerrri hautesle ganboatarren artean bi ahaldun aurkeztu zuen Gizaburuaga barneratuta izanda ere. 1576.ean Matienzo Lizentziatuaren kontrako protestaldian ohi baino ahaldun gehiago onetsi zuten, guztiak ez zirela kanporatu²¹. 1586.ean, berriz, aurreko prozedura bertan behera utziz, ez zituzten Nabarnizeko bi ordezkariak ere onartu²². Honen ondorioz, Elizateek hurrengo hauteskundeetara ordezkari bana aurkeztu zuten. 1591.ean udalerrri batzuetako ordezkari bikoitza onetsi zen, asanbladaren hasieran Erregimentuei buruzko zenbait eskakizun zela medio²³. Halako hartan bi ordezkariak sarritan kontrako irizpidekoak zirela zehaztu zen aktetan. 1596.ean Rodrigo de Solarte zehaztugabeko Elizate bateko ordezkari modura aurkeztu zen eta alde aurreko ahalduna kanporatu zuen²⁴. 1599.ean maiz arazoak sortarazitako errepubliketako ahaldunak ez zituzten onartu ahalmenetan –ustez– zeuzkaten akatsengatik, nahiz eta bertara bestelako ahaldunak ez azaldu²⁵. Hala ere, Urdulizeko bigarren ahalduna baliogabetu zuten. Aurrekoak 1602.eko hauteskundeak normaltasun handiagoz ospatzea eragin zuen, nonbait. 1613.ean ere ez omen zen arazo handirik azaleratu, hizkuntzari buruzko murriztapenaren ondorioz edo²⁶. Beste horrenbeste esan deza-kegu 1616.eko hauteskundeak: Forua, Lumo eta Ipazterko ahaldunak bigarren egunean agertu zirela, San Juan de Munitiz Sindikoak hauteskundeak lehenbizi-koan ospatzea eskatu zuen –alferrik, alabaina. 1618.ean Korrejidorearen auto berriak aurreikusitako eragin beldurgarrikeri zabaldu ez omen zuenez gero, Mendexako bigarren ahalduna kaleratu zuten²⁷. 1620.ean ere arazoa errepikatu zen, Arratzuak bi ordezkari, ahalmenak *in solidum* zeramatzatzenak, aurkeztu zituelako, inolako oztoporik gabe²⁸. 1624. urtean, alde aurreko bileretan izandako kanporaketak guztiz ahaztuta edo, udalerrri batzuk ahaldun bikoitza aurkezten jarrai-

17. Beste bileretan, berriz, udalerrri bakoitzeko ahaldun bat baino gehiago onartu zuten, batzutan ahalmenik gabekoak izanda ere.

18. 1569.eko Ekainak 7ko Batzar Nagusiak.

19. 1574.eko Martxoak 14ko Batzar Nagusiak.

20. 1571.eko Abenduak 4ko Batzar Nagusietan, berriz, Mundakako bi ordezkariak onartu zituzten bitartean, gainerako ahaldun bikoitzak kanporatuak izan ziren.

21. 1576.eko Uztailak 31ko Batzar Nagusiak.

22. 1586.eko Uztailak 1eko Batzar Nagusiak.

23. 1591.eko Azaroak 5eko Batzar Nagusiak.

24. 1596.eko Urtarrilak 2ko Batzar Nagusiak.

25. 1599.eko Martxoak 30eko Batzar Nagusiak.


26. Bazterketa Batzar Nagusietan arautu bazen ere, hasi baino lehenago gai-ordena aztertze-ko bertaratutakoak biltzen zirela ez dugu ahaztu behar.

27. 1618.eko Uztailak 11ko Batzar Nagusiak.

28. 1620.eko Uztailak 28ko Batzar Nagusiak.

tu zuten, lehenagoko zozketetako sistema berreskuratu zela²⁹. Geroago, blokeen arteko *statu quo* delakoaren bilakabidearekin batera, arazoa moteldu zen.

Aurreko adibideetan izaera eta larritasun desberdinetako arazo diferenteak zeuden batera, itxura berekoak zirelako. Ajangiz, Ereño edota Mendata bezalako Elizateetako kasuak, sarritan errepikatu zirenak, zentsari eta infanzoiaren aurrez aurreko liskarraren adierazleak ziren. Sarritan, berriz, Hiribilduetako kide edota fakzio batzuk Lur Lauko erakundeetan parte hartzeko burututako azpijokotzat hartu beharra dago: horrexegatik 1630.eko Konkordiaren bezperan bukatu zen. Gainerako kasuetan, azkenik, oportunitate hutsa baino ez zen izan, hautesle kopuru handiagoa erdiesteko asmoz. Edozelan ere, Bizkaiko Ekialdeko eskualdea (kostaldekoa, batez ere), 1631 eta 1634 bitarteko mugimenduan aparteko protagonismoa izan zuena, nabarmentzekoa da udalerrietako kokapenaren azterketaren bitartez. Aldez aurreko arazo eta azkeneko gertakizun hauen arteko hala edo nolako lotura, beraz, erraz susma daiteke.



Iturria: BFAA, AA, Bizkaiko Batzar Nagusi eta Erregimenduetako Akta Liburuak

Oharra: Udalerri bakoitzaren ondoko zenbakiak ezohiko Batzar Nagusietako kopurua adierazten du

1.4. Iruzurak eta bestelako irregulartasunak

Gobernuan sartu ahal izateak zekartzen fakultate handiak kontutan hartuz gero, iruzur gehienak hauteskondeak ospatuko zituzten asanbladetan gertatu zirela pentsa daiteke (alde aurreko ildoari jarraituz), kargurik jasotzeko edota beste norbaiten alde aritzeko.

29. 1624.eko Abuztuak 6ko Batzar Nagusiak.

Ezagutzen ditudan lehen hauteskundeetan³⁰ irregulartasunak izan ziren ahalmenak aurkezten. Ordezkeri batzuk ahalmenik gabe onetsi ziren, arrazoi beragatik beste batzuk kaleratu zituzten bitartean eta, gainera, norbait Elizate batzuen izenean azaldu zen³¹. Dena dela, ez dut kasu honetatik zuzeneko ondorioarik atera nahi, Zamudioko ordezkariak bozkatzea errefusatu zuelako bandorik ez zuela argudiatuz. Izan ere, nire iritziz, halako portaerak Hegas Benegas Korregidorearen kontrako gatazkaren esanetara ulertu behar dira.

Bandoz itxuratutako enfrontamendu haiek garrantzi handiagoko aurkakotasunak estaltzen zituzten, batez ere bikoiztasun instituzionalaren ondoriozkoak, asanbladetako asistentzian ere gauzatu zirenak. Gobernu berria hautetsiko zuten 1561.eko Azaroak 25eko Batzar Nagusietan Domingo de Jauregui eskribau kanporatu zuten. Honek Natxitua eta Gizaburuagako talde oinaztarren ahalmenak ekarri zituen, baina bi udalerrri haietako ahaldun ganboatarren boto kopuru handiagoak zituztela esanez bertan behera utzi zizkieten. Eta Bedaroko ahalmena ere aurkeztu zuenez gero, hura ere baliogabetu zioten, halako hartan Hiribilduko auzokidea zela argudiatuz. Dena dela, 1562.eko Apirilak 28ko Batzar Nagusietan Jauregui onartu zuten Gizaburuagako ahaldun modura. Egia esan, eskribau harenganako gorrotoa 1558.ean Jaurerriko auziak izateari lotuta egon zitekeen³².

Irregulartasunak XVI. mendeko laurogeita hamarreko hamarkadan areagotu ziren, blokeen elkarren aurkako enfrontamenduarekin batera. 1596.eko Urtarrilak 2ko Batzar Nagusietan Martín de Sasía onetsi zuten Barakaldoko ordezkari, aurrez Martín de Aguirre bertako Fielaren ahalmenak legezkotzat eman bazituzten ere. Sasía ganboatarren hauteslea atera zen eta aipatutako bandoak Martín de Abendaño aho batez Ahaldun Nagusi izendatu zuen. Hura erakunde mailako azkeneko tira-biretan Abendañoaren fakzioak lortutako garaipenaren adierazlea izan zen, eta baita Rodrigo de Solarte ahaldunaren onespina ere (Hiribilduetako auzokidea zela leporatzeaz gain ahalmenak epez kanpo aurkeztu omen zituen).

Hurrengo hauteskundeetan, 1599.eko Martxoak 30ekoak, hautesleen zozketa errepikatu behar izan ziren, emaitzak ezagutu ondoren Xemeingo ahalduna zozketan ez zela sartu jabetu zelako³³. Erreklamazioaren helburua zein zen zehazki ez dakit, baina Gobernu berria izendatzeko deitutako hurrengo Batzar Nagusietan³⁴ ez zuten Xemeingo ordezkaria onartu ahalmenean izandako ageriko akatsagatik.

30. 1559.eko Azaroak 14ko Batzar Nagusiak.

31. Ochoa de Gana, inolako ahalmenik gabe, Sopela eta Barrikaren izenean ageri zen, lehenbikoaren ordezkari bezala onartu zutela.

32. Gobernuko karguak ere bete zituen: 1567 eta 1571.ean Idazkaria, eta 1578.ean behin behinako Idazkaria.

33. Zozketa berriko bi hautesle, gainera, aho batez kargudun izendatu zuten.

34. 1602.eko Irailak 3ko Batzar Nagusiak.

1616.eko hauteskundeetako asanbladan³⁵ Pedro de Urasandik Sondika, Loiu eta Erandioko ordezkapenak batu zituen, azkeneko honen hauteslea izan zela. Lau urte beranduago³⁶ Elizate batzuetako ordezkapena errepikatu zuen. Domingo de Argaluz Sopela eta Berangoren izenean azaldu ahal izan zen. Domingo de Zubiaga eskribau eta Getxoko ordezkaria zenari, berriz, ez zioten utzi, Portugaleteko auzokidea ere bazela esanez. Jakina, Zubiaga baztertzeko benetako arrazoia Armadetako Eskribautza betetzeak sortarazten zuen amorrua baino ez zen³⁷.

Dena dela, hauteskunderik gabeko Batzar Nagusietan ere iruzurrak izan ziren. Inportantzia handiko gaiak aztergai izango ziren asanbladetan parte hartzeko nahia edota –alderantziz– beste norbaiten partaidetza eragoztekoa areago zitezkeen. 1613.eko Uztailak 30eko Batzar Nagusietan Olabarrietako Juan Hernani de Areilzak Ereñoko ahalmenak aurkeztu zituen, geroago Martín de Aurrecochehari eman zizkiola. Azkeneko aldaketa honen arrazoia zehazki ez dut ezagutzen, baina azpajoko haren atzean infantzoiaren taldearen defentsa ei zegoen. 1621.eko Apirilak 20an Hernando Saez de Oca Gorozika eta Ibarruriko ahalmenak eraman zituen asanbladara. Halako hartan, egun osoan zehar, Hiribilduetako Idazkariaren ordezkapena eztabaidatu zen. 1624.eko Martxoak 19ko Batzar Nagusietan aurreko urteetako malgutasuna bertan behera laga zuten eta ez zioten Jacobe de Barrauzi Igorre eta Arantzazuko ahalmenak, biak batera, ordezkatzera utzi. Hurrengo bileran Martín de Urquiza eta Juan Jacove de Cavela, Ipazterko ahalduna eta Gizaburuagakoa, hurrenez hurren, kanporatuak izan ziren, auzotasuna zela medio³⁸. Bertan Ubideko Elizateak izandako jokabidea deigarria da oso: aurreko bileran bere ordezkaria kanporatu zutela, halako hartan ahaldun euskaldunik kartzelaratzten parte hartu zuen Sindikoetako bat (zere-sanik ez, beste udalerrri batekoa zena) aurkeztu zuen. Martín Ruiz de Gortazar Vilela 1627.eko Azaroak 2ko Batzar Nagusietara joan zen Dima eta Arteako ahalmenak eramaten. Pedro de Urasandi, bere aldetik, berriz saiatu zen 1628.eko Urtarrilak 11ko asanbladan eta Sondika eta Erandioko ahalmenak aurkeztu zituen, baina azkeneko Elizate honetakoei muzin egin behar zien. Bilera berean bilbotar nabarmen bi –Jacobe de Ugaz Hormaeche eta Ignacio de Asurduy– onartu zituzten, Hiribilduko inguruetako udalerrietako ahalmenak aurkeztu arren. Jakina, azkeneko jokabide hau ulertzeko Hiribildu eta Elizateen arteko 1630.eko akordioa kontutan hartu behar dugu, gaia asanblada hartan eztabaidatu zelako.

Batzar Nagusietan Jaurerriko kargudunen asistentzia ere nabarmentzekoa da. Gai honi buruz ezagutzen dudan xedapen bakarra 1648.eko akordioa da, Gobernuo kideek beraien udalerrriak ordezkari zitzaten baimendu zituena (nahiz

35. 1616.eko Martxoak 8ko Batzar Nagusiak.

36. 1620.eko Uztailak 28ko Batzar Nagusiak.

37. SAO, GIA, 1103. PS.

38. Lehena Lekeitiokoa zen; bigarrena, berriz, Genoakoa, eta gainera ez omen zuen egjaztagirik aurkeztu.

eta Hortuño de Guesala Sindikoa horren aurka azaldu)³⁹. Beraz, aurrez legezkoa ez zela ala gaiari buruzko araurik ez zegoela ondoriozta dezakegu akordio honen arabera. Edozelan ere, kargudunak sarritan azaldu ziren bileretan. Jokabide honen arrazoiak gainerako guztien parekoak omen ziren, betiere botoa emateko eskubidea kontutan hartuta, kargudunik ez zeukalako eskubiderik, Ahaldun Nagusien salbuespenaz.

Ahaldun bakoitza bere Elizatearen izenean, edota -gehienez- inguruneko udalerriren baten ordezkapenean bertaratzen zen. Portaera hau, orokorrean, eraginkortasunari lepora diezaiokegu, noizbehinka bestelako jukutriak guztiz baztertu gabe. Tarte handiko mugimenduak, berriz, ohikoak ez izanda ere, aurrekoak baino esanguratsuagoak ziren, blokeen arteko gatazkaren adierazpide desberdinak islatzen zituztelako. 1595.eko Urtarrilak 24ko Batzar Nagusietako gertakizunen ondorioz, San Juan de Munitizek, Sukarrietako konfiantza galdu egin zuenez gero (alabaina Sindikoa izaten jarraitu zuen)⁴⁰, hurrengo asanbladetara beste Elizateen ahalmenaz azaldu zen. Lehenik Ibarrangeluren izenean⁴¹, geroago Abandoren ordezkapenean eta 1599. urtean, azkenik, Sukarrietako ahalmenak berreskuratzeaz gain, Sindiko izendatu zuten⁴². Antonio de Gorrio Gernikako eskribaua 1590.eko Abenduak 4ko Batzar Nagusietara joan zen Markinaren izenean. Behin berriro, gorabehera guzti hauen atzean Lur Lau eta Hiribilduen aurrez aurreko enfrontamenduak, edota bloke bakoitzaren barruan gai berbera zela kausa irizpide desberdinetako taldeen elkarren kontrakoak ditugu⁴³.

2. GOBERNUA

Ez dugu Jaurerriko erakundeetako antolaketa guztiz berdintzailea edota menpeko taldeen interesetara egokitutakoa zenik pentsatu behar, hasieran azaldu-takoak hala edo nola kontrakoa emanda ere. Talde zuzentzaileak tresna desberdinak zeuzkan bere interesak nagusitu ahal izateko. Sarrera murriztekoak ziren Erregimentu eta Aldundiek -alde batetik- eta partaidetza zabalagoko Batzar Nagusiek -bestetik- erakunde kontrajarriak ematen zituzten, Jaurerriko antolaketari zegokionez aurkako ikuspuntuak islatzen zituzten eta. Erregimentu eta Aldundien finkapenak herri xumearen partaidetzaren atzerapentzat har daiteke, nonbait. Jakina, eraginkortasuna ere kontutan hartzekoa da, udal erakundeetan gertatu zen bezala.

39. 1648.eko Irailak 22ko Batzar Nagusiak.

40. Ik. BFAA. AA. EE. 4. E, 27. znbk.

41. 1596.eko Urtarrilak 2ko Batzar Nagusiak, non Gobernuko karguak berritu ziren.

42. Bitxia ematen badu ere, Abandoko Elizatearen bazterketa handik aurrera hasi zen, udalerrri honek suteji-banaketak hiru mila marauritara mugatzen zuen Errege Probisioa lortzean. Abando irizpidea eta botoa emateko eskubiderik gabe gelditu zen.

43. Cf. ZABALA MONTOYA, M. *Conflictividad y recomposición socio-institucional en Bizkaia en el contexto de la época de las alteraciones*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2001 (argitaragabeko doktolegoko tesia); 91. or. eta hurr.

Erregimentua talde zuzentzaileak bere interesak nagusitzeko erakunde aproposa da, legaltasunaz edota iruzurrak eginda ere. Izan ere, 1620.eko Uztailak 28ko Batzar Nagusietan zeragatik izan ziren kegak:

[...] los daños e ynconbenientes grandes que han Resultado y resultan a este Señorío de Vizcaya del amaño que han querido tomar algunos Síndicos Procuradores Generales elegidos por la Junta de llamar y conbocar para los Regimientos otras personas de las que son propiamente del dicho Regimiento, yntroduziendolas en él para que tengan voz y voto [...] ha sucedido meter los dichos Procuradores tantas Personas y Botos que an echo mayor parte con lo qual no an dexado ni dexan al dicho Regimiento botar y acordar lo que conbiene al vien y utilidad del Señorío, a quien representan, como es justo lo agan⁴⁴.

2.1. Hauteskundeetako kontrola

2.1.1. Auzotasuna

Ezaguna denez, Hiribilduetako biztanleek ez zuten Jaurerriko kargurik betetzerik izan Konkordia onetsi arte⁴⁵. Dena dela, alde zuzenetik Hiribilduetako auzokide batzuk karguren bat eskuratu zuten auzotasun bikoitza –edota anitza– izatearren.

1589. urtean Juan Saez de Villela Erregidore eta Prudencio de Isasi Idazkariaren hautaketak baliogabetu ziren, Mungia eta Bilboko auzokideak zirelako. Baina ordezkoen izendapenak ez ziren eskakizun guztiak betetako hautagaien zozketa berriaren bidez, baizik eta, dirudenez, baztertutakoak proposatu zuen Antonio de Guerrak, Dimako hautagaiak, egindako zuzeneko aukeraketaren bitartez⁴⁶.

1593.eko hauteskundeetan lau kargudun baliogabetu zituzten Hiribilduetako auzokideak izateagatik⁴⁷. Hala ere, izendapena berretsi zen eta azkenik guztiek karguak hartu ahal izan zituzten.

1620.ean, eta Pedro de Urasandiren eskariz, Juan Ortiz de Olaeta Mendieta Ahaldun Nagusi oinaztar izateko hautagaia bertan behera utzi zuten Lekeitioko auzokidea zela argudiatuz⁴⁸. Jarraian, beste horrenbeste egin zioten Domingo de Zubiaga Portugaleteko eskribauari, Erregidore izateko proposatu zutela. Bigarren kanporaketa hau aurrekoaren mendekutzat hartu behar dugu. Izan ere, Zubiaga

44. BFAA. AA. Bizkaiko Batzar Nagusi eta Erregimentuetako 8. Akta Liburua (1620/29), 10. or.

45. Egia esan, Gobernuan parte hartu ahal izan zuten 1628.eko hauteskundeetatik aurrera, azkeneko akordioa sinatu aurretik, alegia.

46. 1586.eko Abuztuak 22ko Lur Lauko Erregimentua.

47. 1594.eko Otsailak 27ko autoaren arabera.

48. Ajangizeko auzokidea ere ba omen zen. Harrigarria izanda ere, Pedro de Urasandik urte batzuk lehenago horren aita proposatu zuen Gobernuko kargurik betetzeko.

Erandioko hauteslea zen Pedro de Urasandik proposatu zuen; salaketa, berriz, Pedro de Lamiquiz Mendatako hautesleak, aurrez Ortiz de Olaeta Mendieta izendatzen saiatu zenak, burutu zuen.

Jaurerriko Aholkulariak salbuespenekoak dira gorabehera hauetan. Berezitasuna ulergarria da oso, halako kargurik bete ahal izateko menperatu beharreko legegintza Hiribilduei lotutako jarduera omen dugu eta. Hala eta guztiz ere, 1597.ean⁴⁹ Hiribilduetako auzokiderik Aholkulari hautatzearen aurkako protestak plazaratu ziren, bertako legeria eta Lur Laukoa desberdinak izateagatik eta Hiribilduen kontrako auzi ugari izatearren⁵⁰. Baina bi urte beranduago⁵¹, hama-lau ordezkarien ekimenez, kontrako proposamena izan zen, nahiz eta azkenik aurrera ez egin⁵². Egia esan, guzti honen atzean –behin berriro– blokeen elkarren kontrako borroka antzeman daiteke. Izan ere, lehenbiziko xedapenaren ondoriozko kalteak Juan Ochoa de Ceceyaga Lizentziatu bilbotarrak pairatu zituen, gatazka hartan partaidetza handia izan zuenak. Esanak esan, aurreko araua ez zuten tinkotasunez bete. 1609.ean Tomás de Dóndiz eta Martín de Apeñerribay Lizentziatu bilbotarrek Jaurerriko Aholkularitza bete zuten. 1616. urteko izendapen berrietan Pedro Ortiz de Atucha Doktore durangarra eta Bermeoko Fernando de Veléndiz Lizentziatua aukeratu zuten, betiere bi hauek jardueretako kokagunea zen Bilbotik urrun bizi zirenez gero, Tomás de Dóndiz Lizentziatuak ere esku hartuko zuela protestak izan arren⁵³. 1624.ean Juan Ochoa de Mendiola gernikarra izendatu zuten, kargudun bakarra gainera.

2.1.2. Hutsunea

Gutxieneko tarte edo hutsuneak karguetako oligarkizapena ekiditeko helburua zuen, beste hainbat erakundetan bezala. Dagokigunean gutxieneko bi urtetako epea itxaron beharra zegoen izendapen berriari eutsi ahal izateko. Aztertutako garaian hutsunea bete ohi zuten, amaieran baino ez zirela irregulartasunak ageri. Derrigorrezko hutsunea gogorarazten zuen 1605.eko xedapena Lur Lauko talde desberdinen elkarren kontrako tira-birak zirela medio konprenitu behar da, nik uste. Izan ere, Martín de Abendañori leporatu zioten errua, bere aurkako auzietan Jaurerriaren ekimenik oztopatzeagatik.

Behin behineko ordezkapenak hutsunearen eskakizuna bete gabe onetsi ziren. Baliteke halako portaera zilegi izatea, arauak hauteskundeetan parte hartzea debekatu arren, izendapen batzuk zuzenekoak zirelako. Izan ere, Pedro Ochoa de Gallarza, 1558.eko Idazkaria, hurrengo urtean behin behineko Ahal-dun Nagusi izendatu zuten. Noizbait, berriz, hala jokatzetik ezin izan zuten.

49. 1597.eko Uztailak 30eko Batzar Nagusiak.

50. Salaketa hau Lur Lauak bestelako gaiak ere –auzotasunak edota bandoak, besteak beste– azaleratu zituen neurri multzo handiagoaren testuinguruan kontutan hartu beharra dago.

51. 1599.eko Martxoak 30eko Batzar Nagusiak.

52. DE AREITIO Y MENDIOLEA, D. *El Gobierno Universal del Señorío de Vizcaya*. Bilbo: Bizkaiko Aldundia, 1943; 129-130. or.


53. 1616.eko Apirilak 16ko Batzar Nagusiak.

1630.ean Juan Martínez de Dóndiz Idazkari berraukeratzean, ordezkari asko aurka azaldu ziren. 1638.ean antzeko zerbait gertatu zen, Gonzalo de Lopateguik, zozketan atera zenak, Idazkaritza bete ez zuenez gero, haren ordezkari Martín Iñiguez de Zugasti mantendu zela. 1656. urtean Bigarren Idazkaria zen Antonio de Salcedo Lehen Idazkari izendatu zuten. 1660.ean ere ez zuten Idazkaritzari zegokion hutsunea bete: aurreko bi urtetan Bigarren Idazkaria izandako Iñigo de Galbarriartu lehenbizikoa betetzera pasatu zen, beste Idazkaritzan Francisco de Allende ordezkapena errepikatu zuen bitartean. Gertaera hauek eraginkortasunari lepora geniezazkiokeen, nonbait. Dena dela, beste karguetan ere ez zuten hutsunea erabateko tinkotasunez bete, ezohikoagoa izanda ere. Pedro Ibáñez de Zubialdea Doktorea Sindiko aukeratu zuten 1611.ean eta, bi urte beranduago, Erregidore. Hortuño de Guesala Lizentziatua, berriz, Erregidore izendatu zuten 1644.ean eta Sindiko 1646.ean. José de Urizar Lizentziatua Bigarren Sindiko hautetsi zuten 1656.ean eta 1658.ean. Jakina, adibide hauetan ere eraginkortasunezko argumentua ez ote zen izan galde diezaiokegu geure buruari aipatutako kargudunen tituluen arabera.

2.1.3. Zozketa

Hauteskundeetako prozedurari jarraituz, hautesleek kargu bakoitzeko hautagai batzuk zakuratu behar zituzten. Esanak esan, hautesleen arteko aho bateko akordioaren bidezko zuzeneko izendapenak sarritan izan ziren. Hona hemen datuak:

1. Grafikoa: Bizkaiko Jaurreriko hauteskundeetako zozketarik gabeko kargudunak (1559/1648)



Iturria: BFAA, AA, Bizkaiko Batzar Nagusi eta Erregimentuetako Akta Liburuak
Oharra: 1605 eta 1607.ean daturik ez

Zenbait urtetan datua ez zela aktetan zehaztu gogorarazi beharra dago. Dena dela, 1593.ean, muturreko adibide batetan, zozketarik gabe hiru Ahaldun Nagusi izendatu zuten, Martín Ruiz de Arteaga hiltzean Domingo Ortiz de Arana, bere ordezkoa izan zena, horrela aukeratu zuten eta. Bestalde, grafikoan ez dira Aholkulariak irudikatu hautesleen arteko akordioaren bidez izendatzea legezkoa izateagatik. Edozelan ere, zuzeneko izendapenaren prozedura XVI. mende amaieran –Jaurerriko blokeen elkarren aurkako gatazka bere mailarik larrienean zegoenean, hain zuzen– finkatu zela ondoriozta dezakegu, aurreko datuen arabera.

1611.ean aukeraketa mota honen kontrako protesta azalerratu zen, Juan de Iburguen kargutik kentzeko asmoz. Baina kexaren azpian sutegei-eroldaren balizko berrikuntzaren inguruko norgehiagoka⁵⁴ omen zetzanez gero, ohitura⁵⁵ nagusitu zen eta izendapena berretsi zuten⁵⁶.

2.1.4. Ogibidea

1579. urtetik ogibide mekanikorik izaten zituztenak Jaurerriko karguetatik baztertu zituzten⁵⁷, baina gaiak ez omen zuen luzaroan arazo handirik sortarazi. 1622.ean Juan Martínez de Arcocha ez zuten Erregidoretzat onartu Korrejidorearen Entzutegiko prokuradorea izateagatik –alde batetik– eta Begoñako Atxurin taberna izatearren –bestetik⁵⁸. Egia esan, aurrez, 1616.ean, Martínez de Arcochak Erregidoretza bete zuen, eta jadanik bere eginkizun profesionalak baztertuta zeuzkan bigarren kargu hura zela medio. Ogibideen arteko bateraezintasunezko aitzakiarik erabiltzerik ez zegoenez gero, Jaurerriak ohorezko argumetuari eutsi zion hautagaia baztertzen ahalegintzeko, zera esanez: “al que es Regidor de un tan grabe Señorío se le deve diferente respeto y tratamiento que a un Procurador”⁵⁹. Gainera, 1616.eko aurrekaria ezkututzen saiatu zen. Azkenik, Kantzelaritzako Presidenteak eta Entzuleek baztertutako Erregidorearen aldeko sententzia ebatzi zuten, betiere hurrengo biurtekoan prokuradorearen lana bertan behera utziz gero⁶⁰. Edozelan ere, iskanbila honen atzean hautagai

54. 1610 eta 1611.ean hainbat Elizate, batik bat Arratia, Bedia eta Zornotzako Merinaldeetakoa, sutegei-erolda berriztatzeko Jaurerriak proposatutako egitasmoaren aurka azaldu ziren.

55. Zenbait udalerritan ere prozedura bera erabiltzen zela argudiatu zen.

56. 1613.eko Urtarrilak 18ko Gaztelako Kontseiluaren sententziaren bidez (MAHN, DK, 28170 PS, 3. znbk.). Honek ez du esan nahi garbitasunez jokatu zutenik: Juan de Iburguenek kargua utzi zuen urte amaieran eta honen ordezkari Gonzalo de Ugarte izendatu zuten, azkenekoak hurrengo hautskundeetan titularra ere eskuratu zuela, derrigorrezko bi urtetako hutsunea bete gabe.

57. 1579.eko Urriak 27ko Erregimentu Orokorra. Araua Jaurerriko erakundeetan ez ezik, udalerrietan ere bete beharra zegoen, baina azkeneko hauetan zer gertatu zen zehazki ez dakit. Izan ere, Bilboko Hiribilduak bere eskubideak babestu zituen, nonbait.

58. Jaurerriak Martínez de Arcochari Abandoko ahalmenak faltsutu eta Prestamerora erosi izana leporatu zion. Akusazioa benetakoa ote zen ez dakit, baina azpijoko hauek Lope de Basurto Acha, Abandoko Fiela zena, Ahaldun Nagusia izendatzeko ustezko konspirazioan barneratzen zela esatea funtsik gabekoa zela egiaztatzen.

59. VEKA, BE, 329 PS, 2. znbk., non helegitea gordetzen den; Juan González de Salazar Korrejidorearen aurreko jatorrizko auzia hauxe dela: BFAA, AA, Auziak eta Autoak, 4 E, 42. znbk.

60. VEKA, BES, 4. K. (1623.eko Apirilak 28ko sententzia).

ezatsegina baztertzeko asmoa besterik ez zegoen, ustez, Lur Lauko interesen aldekoa izateagatik.

2.1.5. Bandoak

Batzar Nagusi eta Foru Aldunditan ez bezala, dagokigun garaian eta hauteskundeetan, behintzat, bandoak bertan behera zeudela dirudi, oinaztarrek eta ganboatarrek hautagai berberak tartekatu zituztelako. Juan de Ocariz Doktoreak, esaterako, Erregidoretza oinaztarra bete zuen 1652.ean, sei urte geroago Aholkulari ganboatarra aukeratu zuten bitartean. Juan de Tellaèche Lizentziatuak ere bi bandoak tartekatu zituen Aholkularitzan 1646. urtetik aurrera. Beste horrenbeste esan dezakegu Barraicúa Lizentziatuaz, kargu berean 1656.ean. Eta honako kasuan karguaren eraginkortasunari leporatzerik ez dago. Izan ere, 1589.ean Diego de Iruxta Erregidore oinaztarra izendatu zuten, hamar urte beranduago ganboatarrek aukeratu zutela. Adibideak biderka litezke kargudunak baino hautagaiak kontutan hartuz gero, sarritan behin eta berriz pertsona berbera proposatu zen eta. Jakina: honek ez du esan nahi gehienetan gorde ez zenik. Baina maiz protesta handirik gabe alboratu izanak⁶¹ Gobernuetako eraketan indargabekoa zela adierazten du, nire iritziz. Edozelan ere, bandoetako antolaketak talde zuzentzaileak bere interesak defendatzeko mantendu zuen baliabidea –beste hainbat tresna bezala– zela⁶² pentsatzen jarraitzen dut, nahiz eta, zenbait alorretan erabili zuen bitartean, hauteskundeetan helburu baztertzaillearekin ez baliatzeko arrazoiak orain arte ezezagunak izan⁶³.

2.1.6. Ordezkapenak

F. de Sagarmínagaren esanetan⁶⁴ ordezko Ahaldun Nagusiak titularrek izendatzen zituzten, baina Sindikoak, berriz, Erregimentuak aukeratzen zituen. 1620. urtean Martín de Aldape Isasi Ahaldun Nagusi titularraren suhia zen Juan de Aldape Leguizamónen kasuan hala izan zen. 1631.ean Martín de Abendañorekin egoera berdina gertatu zen, Flandesera zihoan Iñigo de Abendaño bere anaiak ordezkatzeko ahalmena luzatu ziola; eta baita 1633.ean ere⁶⁵. Dena dela, kargudun titularra hilez gero, izendapen berria hautesleek bere gain hartu ohi zuten.

61. 1560.eko Urriak 5eko Batzar Nagusietan Gobernuetako hauteskundeetan bando aldaketarik debekatu zen.

62. Cf. ZABALA MONTROYA, M. *Op. cit.*, 2001; 204. or. eta hurr.

63. Garai hartan Enkarterri edota Durangaldean erakunde mailako bandorik ez zegoela ohartarazi beharra dago.

64. SAGARMÍNAGA, F. de. *El Gobierno y Régimen Foral del Señorío de Vizcaya desde el Reinado de Felipe II hasta la mayor edad de Isabel II*. Bilbo: Euskal Liburuaren Lagunak, 1988 (1892.eko berrargitalpena), I. Alea, 91. or. Hipotesi berbera onartzen du D. DE AREITIO Y MENDIOLEAK ere: *Op. cit.*; 141. or.

65. ZABALA MONTROYA, M. *Op. cit.*, 2001; 306-323. or. Honek Gatz Estankoaren Matxinadan eraginik izan zuen.

Adibidez, 1595.ean, Martín Ruiz de Arteaga Ahaldun Nagusia hiltzean⁶⁶, edota 1624.ean, Rodrigo de Vizcarrondo Erregidorea zendu zela⁶⁷. Esanak esan, ez zen honela izan Martín de Abendañoren kasuan, 1632.ean anaia Flandesen hil ondoren.

1595.ean San Juan de Munitiz Sindikoa San Juan de Aboitiz kargutik kentzen ahalegindu zen –alferrik, hala ere– azkeneko honek Gobernuaren izendapenik gabe Pedro de Ansoleaga Sindikoa ordezkatu nahi izateagatik⁶⁸. Ordezko beste Sindiko batzuk Batzar Nagusiek⁶⁹ edota Foru Aldundiak⁷⁰ izendatu zituzten. 1633.ean Lope de Aulestia Sindiko izendatzea aparteko kasua da, Batzar Nagusi zalapartarietan gertatu zen eta⁷¹.

2.1.7. Iruzurrak

Hautesleek sarritan karguren bat jaso zuten zozketarik gabeko zuzeneko izendapenez. Hauexek izan ziren jasotzaileak:

1. Taula: Hautesle eta zuzeneko aukeraketaren bidezko kargudunen arteko loturak (1559/1648)

Urtea	Nortasuna	Kargua
1589	Mauraza, Juan Ochoa	Sindikoa
1589	Ibarra, Pedro Ruiz	Sindikoa
1589	Barrutia, Simón	Idazkaria
1599	Goitia, Domingo	Erregidorea
1599	Urasandi, Pedro	Sindikoa
1599	Olabe, Gonzalo	Erregidorea
1599	Zulaibar, Juan	Diruzaina
1602	Beurco Martiartu, Martín	Erregidorea
1609	Andraca, Martín	Erregidorea
1624	Zarra, Juan	Erregidorea
1624	Mimenza, San Juan	Idazkaria
1628	Oca, Juan Saez	Erregidorea
1628	Algorta, Juan García	Erregidorea
1630	Gana, Diego	Erregidorea
1630	Galarza, Juan Ochoa	Sindikoa

66. 1595.eko Martxoak 12ko Lur Lauko Erregimentua.

67. 1624.eko Urriak 7ko Lur Lauko Erregimentua.

68. 1595.eko Azaroak 10eko Erregimentu Orokorra. Sarrera debekatu ez, baina arreta deitu zioten.

69. 1623.eko Maiatzak 2ko Batzar Nagusiak.

70. 1648.eko Martxoak 12ko aukeraketa.

71. VEKA, BE, 1380 PS, 8. znbk.

Urtea	Nortasuna	Kargua
1630	Ugarte, Martín	Erregidorea
1630	Acurio, Juan Rodríguez	Erregidorea
1632	Ugalde, Domingo	Erregidorea
1640	Gojénola, Mateo	Erregidorea
1646	Guesala, Hortuño	Sindikoa
1648	Arbaiza, Fernando	Erregidorea
1648	Mendiola, Pedro Ortiz	Sindikoa
1648	Madariaga, Francisco	Erregidorea
1648	Zubiate, Francico	Erregidorea

Iturria: Supra, 1. Grafikoa.

Hautesleen arteko akordioaren bitartez kargudunik aukeratzea XVI. mendeko bigarren erdialdetik aurrera egjazta daiteke. Kasu hauetako berrikuntza zera da: hautesleak bere alde bozkatzen zuela. Azpijoko hau gogotsu protestatu zuten 1611.eko hauteskundeetan, baina arrakastarik gabe. Halako hartan, eskakizunaren azpian sutegi-eroldaren berrikuntzaren arazoa edota fakzio batzuen estrategia politikoa zeutzan⁷².

Ahalmenak lagatzea iruzurrik arruntenetakoa zen⁷³. 1616. urtean Juan de Leusarrak, Erandioko ahalduna zenak, ahalmenak Pedro de Urasandiri utzi zizkion eta, horren ordainez, zozketarik gabeko Erregidoretza jaso zuen. Urasandi, era batez zein besteaz, beste irregulartasun askotan ere nahasi zen ondorengo urteetan. 1620.ean Ahaldun Nagusirako hauteskundeetan San Juan de Arechavaleta Sopelako hauteslea zenari Urasandiren alde bi txarteletan bozkatzea debekatu zioten. Hala ere, prozedura bera ez zen bertan behera gelditu 1624.eko hauteskundeetan, Sancho de Aguirre Irabien Gorlizeko hautesleak eta Morgako ordezkaria zen Santorum de Duok Sindiko izateko Diego de Butrón eta Idazkaritzarako Nicolas de Goicoa, hurrenez hurren, birritan proposatu ahal izan zituztela. 1634.ean Pedro Martínez de Bustinza Bilboko hautesleak Sukarrietako San Juan de Munitizi Erregidoretzetarako lau bototatik bi eman zizkion, “porque le diese una suerte de síndico” horren truke. Azkeneko adibide honetan aurrez aipatutako jukutria ez ezik, hauteskundeetako sekretua bertan behera uztea ere nabarmentzekoa da, hautesleen arteko komunikaziorik debekatuta zegoelako.

Are gehiago: Korrejidoreak ere inoiz Jaurerriko bozketetan parte hartzen saiatu omen ziren. Juan de Lazarraga horren adibidea dugu. Izan ere, 1659. urtean Korrejidoreei botorik ematea debekatu zieten⁷⁴.

72. Eskribauen presentzia hauteskundeetan ere salatu zuten. MAHN, DK, 28170 PS, 3. znbk.

73. 1632. urteko kasuari dagokionez, ZABALA MONTOYA, M. *Op. cit.*, 2001; 254-259. orr.

74. 1659.eko Ekainak 5eko Batzar Nagusiak. Halako ustelkeriak ez ei ziren ezohikoak izan: ik. GONZÁLEZ ALONSO, B.: *El Corregidor Castellano (1348-1808)*. Madril: Instituto de Estudios Administrativos, 1970, 143. orr.

3. ONDORIOAK

Goi Aro Berriko Jaurerriko erakundeek giza talde zabalen partaidetza onetsi arren, batzuk esku hartzea oztopatzen zuten zenbait prozedura –legezkoak izan ala ez– finkatzen joan ziren denboraren poderioz. Azpizoko ugariak izanda ere, aztergai izan dudan garaian nahiko parteharmen handia antzeman dut Bizkaiko erakundeetan, batez ere Batzar Nagusietan. Partaidetza honek, gainera, tokian tokiko beste erakundetan –Hiribildu handienetako Erregimentuetan, esaterako– jadanik indarririk hartzen hasitako oligarkizatze mailarekin zerikusirik ez zuen. Edozelan ere, aurreko orrietan azaleratutako jukutria guztietako asko Hiribilduetako talde zuzentzaileak Bizkaiko Gobernuan sartu ahal izateko ibilbide luze eta korapilatsuaren testuinguruan –1630.eko Konkordian finkatutako prozesuan, hain zuzen– ulertu beharra dago, nik uste. Edozelan ere, Hiribilduetako talde zuzentzaileak –lehenagotik bere ingurune hurbilenean baliabide baztertzailak erabili ohi zuen taldeak– Gobernuko karguak lortzeak ez zuen inola ere iruzur eta bazterketaren amaiera erakarri.

LABURDURAK

AA: Atal Administratiboa.

BE: Bizkaiko Entzutegia.

BES: Bizkaiko Entzutegiko Sententziak.

BFAA: Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboa.

DK: Deuseztaturiko Kontseiluak.

E: Erregistro.

EE: Errege Eginkizunak.

GIA: Gerra eta Itsas Armada.

K: Kutxa.

MAHN: Madrilgo Artxibo Historiko Nazionala.

PS: Paper-sorta.

SAO: Simancaseko Artxibo Orokorra.

VEKA: Valladolideko Errege Kantzelaritzako Artxiboa.